

DOÑUA: Andre Madalen

Bixente BARANDIARAN



Errenteritik dei bat nuan
afaldutzera joateko
ori seguru etzan izango
nere buruan kalteko
ainbat gogo nola daukaten
zuen arten egoteko
pena det baina zuen esanik
oraingoz ez det beteko.

Triste samarrik arkitutzen naiz
katarro txar bat artuta
nere buruai kontu egitea
nola nagon beartuta
urteak ere asko dauzkagu
bildurra daukat sartuta
oraindik bertan izan nai degu
egona gaitik zartuta.

Naiz bertara joaterik ez
Errenteri det gogoan
gaur ere pozik sartuko nintzan
afaltzen zuen ondoan
ikusten bait det or neretzako
zer lagun arte dagoan
pozez zoratzen etxeratzen naiz
zuekin egondakoan.

Leku danetan itzegiten det
zuegatikan afanez
lagun jatorrak or neretzako
badauzkatela esanez
al dan guzia egin nai nuke
ain borondate onez
ondo naizela ez naiz astuko
erri ortako lagunez.

Gizon sonatu asko zituan
len ere Errenterik
Xenpelar degu azten ez dena
eta Zapirain biak
Txirrita eta Zaiburu berriz
erriz erri ibiliak
beste ainbeste gelditzen dira
emen aitatu gabiak.

Zuen artean beti izan dute
bertsolariak arreta
beren gogoia erakusteko
ibiliaz bastarreta
saia gaitezen gaurkoak ere
lengo oitura zarreta
emengo askoren idearekin
asperturik gaude ta.

Alkarrik lagun eginez beti
segi dezagun aldana
ondo pensatzen jarri ezker
ori bait da gure lana
bizi gaitezen konturatuaz
denok anaiak gerana
uste ez dala lagunenez
sarri gertauko zerana

Egin dezagun al dan guzia
nai bada burua jaso
alare danan bearrean gu
izango gera akaso
guztiok ondo bear diogu
geren lanari eraso.
Urtean baino urten geiago
indartu dedin Oarso

Bildurrik gabe ekin deiogun
guztiok gogoz lanari
zer egin or sortuko zaigu
nere ustetan danari
jarraitu danok bide ortatik
ainbat merezi dunari
Euskalerrian zabaldu dedin
zuen errebista on ori.

Zueri lagun egitea da
oso gogoko neretzat
au baino geio merezituak
zeratela iruditzen zat
Madalen festak noiz diraden
neri atzenduko etzat
egun ortan nik zuekin nai det
ondo banintzake beintzat.

